



**NAFARROAKO
IKASTOLAK**



**NIE SARIA
2024**

PRENTSA DOSIERRA
2025-01-30

AURKEZPENA

Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE), irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialeko kooperatiba izaki, bereziki, euskara eta euskal kultura, eta, orokorrean, kultura unibertsala sustatzea, biak hezkuntza- eta gizarte- garapenari lotuz, eta jarduera artistikoak eta/edo kulturalak garatzea ditu bere helburuen artean.

Horregatik, urtero hainbat eremutako lagun edo erakunde aintzatesten dira ikastolen mugimenduari edo hezkuntza-munduari egindako ekarpen linguistiko, zientifiko, informatibo, artistiko eta/edo kulturalagatik, bere bizitzako garai ezberdinetan.

Hizkuntzak dira, ziurrenik, kultura baten nortasun-ezaugarririk garrantzitsuena, hiztunen errealitatea eta munduaren pertzepzioa kodetzen baitituzte. Ikastolok hasieratik egin dugu borroka, eta gaur gaurkoz ere horretan dihardugu, gure hizkuntzaren desagertzea saihesteko, bakarra den kultura, ekologia eta historia ezagutzaren galera konponezina ekarriko lukeelako.

Euskara eta euskal kultura, guretzat, giza esperientzia paregabearen adierazpena da, eta gure helburua, eskarmentu hori, bizitzaren arlo guztietan berreskuratzea eta normalizatzea da.

Nafarroako Ikastolen Elkarteak NIE 2024 saria eman dio Martxel Rodriguez Etxabideri

Martxel Rodriguez Etxabidek, Lesakako semea eta Tantirumairu Ikastolako ikasle ohia, Berako Labiaga Ikastolan amaitu zuen derrigorrezko heziketa. Harrezkero, oso aurpegi ezaguna da, eta oso maitatua bere jaioterrian. Tantirumairu Ikastolak proposatu ohi dizkion ekimenean laguntzeko prest beti. Dantzarekin, bere lurrarekin eta bere jendearekin duen konpromisoa parte hartzen duen jarduera bakoitzean islatzen da, ikastolan ikasitakoaren espiritua nora eta hara eramanez.

Sari honek arteari eta, bereziki, dantzaren munduari egindako ekarpen bikaina aitortzea du helburu, non beronen talentu, dedikazio eta pasioagatik nabarmendu baiten. Baina euskararekiko, kulturarekiko eta sustraiekiko baldintzarik gabeko maitasuna ere saritzen du, Martxelek munduko bazter guztietara harrotasunez eramaten duena, nazio mailan zein nazioartean gure nortasunaren enbaxadore izanik.

Etorkizun bikaina ziurtatzen duen bere ibilbide profesionaletik haratago, Martxel gizatasunaren eredu delako nabarmentzen da, inspirazio-iturri delako eta benetako altxor ingurukoentzat. Ikastola mugimenduari duen lotura sendoak eta euskara eta euskal kultura sustatzeko eta indartzeko egiten duen ahalegin etengabeak merezi dute gure aitortzarik handiena eta sentituena.

Horregatik guztiagatik, esker onez eta miresmenez, Nafarroako Ikastolen Elkarteak NIE 2024 Saria eman dio Martxeli.

MARTXEL RODRIGUEZ ETXABIDE



Argazkia: Diario de Noticias.

Dantzari baten esentzia

Martxel Rodríguez Etxabide (Lesaka, 1990) ez da dantzaria bakarrik; mugimenduekin hitz egiten duen arima da. Eszenatoki bat zapaltzarekin batera, bere gorputza hamaika sentrazio transmititzeko gai den hizkuntza unibertsal bihurtzen da. Bere istorioa ametsak koreografia bihurtu zituen artista batena da.

Euskal Herriko dantza konpainietatik hasi eta nazioarteko konpainietaraino, Martxelek aztarna ezabaezinak uzten ditu zapaltzen duen eszenatoki bakoitzean. Bere mugimenduek, sentiberatasun berezi batez beterik, koreografiak poesia bihurtzen dituzte.

Erreferente garrantzitsua da ikastoletako gure ikasleentzat, inspirazio-iturri, artearen bidez beren bizitzak eraldatzea amesten dutenentzat. Tantirumairu Ikastolarekin elkarlanean aritzeko prest beti, bai dantzarekin zerikusia duten jardueretan, bai hezkuntzarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia dutenekin.

Hurtzaroa eta prestakuntza: Bere pasioa eraikitzen

Martxelek Lesakako Tantirumairu Ikastolan egin zituen haur eta lehen hezkuntzako ikasketak, non hasieratik bere sormen artistikoa garatzeko askatasuna izan zuen, garai hartan ikastola osatzen zuen hezkuntza-komunitate osoaren laguntzarekin. Ondoren, Berako Labiaga Ikastolan jarraitu zuen DBHko ikasketekin. Beti ikastola osatzen duen familia bidelagun izanik.

Lesakan hazi zen, ezkutuko doinuak xuxurlatzen zituztela ziruditen paisaiatz inguratutako herri batean, non mugimendua adierazpide gisa deskubritzen joan zen. Gaztetatik, jakinmin bezetako bere begirada eta bere pauso urduriek artearekin zuen lotura berezia erakusten zuten.



Dantzaren hazia landatua zen. Akaso, bere etxeko sukaldean ikasiko zuen erritmoa koilara batek kaikuaren kontra jotzean sortutako zarata oinarri, edo herriko festetan, txistua eta danbolina bere bihotzari mintzo zitzaizkionean, edo dantza tradizionalen bidez, "Zubigaineko" dantza kasu, Onin ibaiaren bi ertzetako petrilen gainean hainbestetan dantzatu duena.

Ikastolak herritik eta herriarentzat sortu ziren eta esentzia horri irmoki errotuta bizi da Marxtel. Bere espiritu eskuzabalak Tantirumairu Ikastolak proposatzen dion edozein ekimen, ekintza edo proiektuarekin bat egitera eramaten du, gogotsu, betiere bere ingurunea, euskara eta euskal kultura aberasteko asmoarekin. Txoko honetatik, Martxelek bere begirada eta bihotza mundu osora zabaltzen ditu.

Barru-barruan sentitzen du ikastolan izandako ibilbideak bere bizitza markatu duela, eragin eraldatzailea eman diona eta gaur egun ere bere urratsak gidatzen dituena. Ikastolek bezala, Martxelek bere ezagutza eta izaera gizarteari eskaintzen dizkio, altruismoz, bere arrastoa utziz. Aktiboa eta konprometitua, kulturaren zaindaria eta bere sustraian defendatzaile sutsua da.

Fisikan Graduatua, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza masterra ere eskuratu zuen. Karrera ikasten zuen bitartean, dantza garaikideko klaseak hartzen zituen arratsaldeetan, argi zuen dantzari izateko ametsaren atzetik ibili nahi zuela, bere benetako pasioaren atzetik, alegia.



Argazkia: Irantzu Pastor.

Prestakuntza artistikoa eta lorpenak: Eszenarioak konkistatuz

22 urterekin opera figurazio bat egin zuen Bilbon eta bertan hasi zen dantza profesionalaren mundua ezagutzen.

2013an, Dantzaz Konpainiarekin hasi zuen bere bidea. 2014an, Danimarkako Black Box Dance Company konpainian sartu zen. Tel Aviven bere prestakuntzarekin jarraitu zuen eta bere lurraldera itzuli zenean, *Oskara* proiektuan sartu zen 2015ean, Kukai Dantzaren (Dantza Sari Nazionala 2017) eta La Veronal-eko Marcos Morauren (Dantza Sari Nazionala 2013) arteko lankidetzan, hain zuzen. Lan horrek arrakasta izan zuenez, 2017ko MAX sarietan finalista nominatu zuten, gizonezko dantza-interprete onenaren atalean.

2019an, Valentziako Erkidegoko Premis de les Arts Esceniques nominatu zuten dantzari onena izateko, Taiat Dansaren *Canvas of Bodies* lanari esker.

Martxelek prestakuntza jasotzen jarraitu zuen eta Kataluniako Oberta Unibertsitatean Kultur Kudeaketako Masterra lortu zuen. 2016az geroztik, bere konpainia propioa zuzentzen du, egoitza Lesakan duena, Led Silhouette, Jon Lópezekin (Madril, 1993) batera, eta bitartean, biek goi mailako dantzariak izaten jarraitzen dute, munduan zehar dauden hainbat konpainia eta proiektuekin elkarlanean.

Led Silhouetteren lana ez da soilik gorputzean oinarritzen, beronetatik haratago ere iritsi nahi du. Bere lengoia diziplina artistiko ezberdinetan adituak diren hainbat pertsonetik elkarlanetatik elikatzen da eta atmosfera eraldatzaileak sortzea lortzen du, non dantza hainbat modutan azaltzen den, xehetasun guztiak zainduz, eszenografia, jantzia, musika eta abarretako eremuak zainduz, alegia.



Ekoizpen propioez gain, hainbat sorkuntza-lan eta -laborategi egiten hasi ziren Valencia Dancing Forward, LAB 180° eta Dantzaz Konpainia bezalako konpainietan. 2021eko irailean Portugalera bidaiatu zuten RGB ekoizteko, Led Silhouettek Dança de Almadako Companhiarentzat sortutako ikuskizuna.

2021ean, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria jaso zuen Martxelek, duen prestakuntza sendoagatik, eta nazioarteko ibilbideagatik eta Nafarroako sortzaile gazteen artean erreferente izateagatik.

Martxel Rodriguezek eta Jon Lopezek, Led Silhouette konpainiarekin, RNE Dantzaren 'El Ojo Crítico' saria irabazi dute, dantza garaikidearen munduan nabarmena den kokalekuan paratu dituenak.

Aktualitatea eta etorkizuna: Distiraten jarraitu

Gaur egun, Led Silhouette bezala, *Nozze Morricone*-n parte hartzen ari dira, Marcos Morau sortzaile nabarmenaren zuzendaritzarekin eta koreografiarekin. Gainera, birarekin jarraitzen dute beren azken bi ekoizpenekin, *Los perros* (interprete gisa) eta *Halley* (zuzendari gisa).

Lesakak eta Bortziriak dantza garaikidea ezagutzeko pribilegioa dute Martxeli esker, Led Silhouetteren bitartez eskualdera bizitzaz eta emozioz beteriko artea ekarri duen ameslariari esker, alegia. Led Silhouette lana ez da soilik dantzara mugatzen; diziplina anitzeko ikuspegiak musika, ikus-entzunezkoak eta beste arte-adierazpen batzuk elkartzen baititu.

Bere lanak ofizialki aurkeztu aurretik, Led Silhouettek bere azken entseguak Lesakako publikoarekin partekatzeke ohitura du. Lehen aipatu dugun bezala, gizarteari itzuliz, herriari bere arima sortzailearen zati bat oparitzen.

Led Silhouetteren egoitza Lesakan ezartzea erabaki kontzientea izan zen, hausnarketa sakon baten eta sustraiekiko konpromiso baten emaitza. Herriarentzat, arte garaikidearen leiho honetara sarbidea izateak, bere talentu eta ikuspegiaren bidez, balio kalkulazina du.

Martxelen bizitza ibilbideak, bai profesionalak Led Silhouette konpainiarekin, bai pertsonalak, etorkizun bikaina izango duenaren itxura dauka eta horixe opa diogu.

Zorionak Martxel!